# Artisau Entitateen Erregistroan ALTA ESKAERA urratsez urrats

*Ekonomia Sustatzeko Saila/Dpto. de Promoción Económica*
*Eskualde Garapenerako Zerbitzua/* Servicio de Desarrollo Comarcal
Obispo Orueta, 6. 48009 BILBAO - artisautza@bizkaia.eus

1. Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualerako sarbidea

Bulego birtualean sartzeko, http://www.bizkaia.eus webgunean sartu eta “Egoitza elektronikoa” aukera sakatu, pantailaren goiko aldean. Ondoren, pantailaren amaieran, sakatu "Ekonomia Sustatzeko Bulego Birtuala" aukeran, BULEGO BIRTUALAK atalaren barruan.

Identifika zaitez dagokion identifikazio-txartelaren bidez (NAN elektronikoa, B@KQ txartela, ziurtagiri digitala, etab.).




DOKUMENTUAK SINATZEA ETA SINADURAK BALIOZKOTZEA
SINATU EDOZEIN DOKUMENTO ELEKTRONIKOKI ETA BALIOZKOTU
IDENTIFIKAZIO- ETA SINADURA-SISTEMAK
KONTSULTAK, KEXAK ETA IRADOKIZUNAK
EMAGUZU ZURE IRITZIA ZERBITZU HOBEAGOA ESKAINTZEKO
DOKUMENTUAK EGIAZTATZEA
LOKALIZATZAILEAREN BIDEZ ETA SINADUREN BIDEZ
BULEGO BIRTUALAK
Osaguna eta Finantzak - BizkaiBai
Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Bulego Birtuala
Ekonomia Sustatzeko Bulego Birtuala
Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna
Katastroa


Bizkaia
FORU ALDUNDIA - DIPUTACIÓN FORAL
Castellano
Ekonomia Sustatzeko
Bulego Birtuala
Hasiera
Bulego Birtuala Zer da?
Zerbitzu katalogoa Bulego Birtuala izapideak
Manual de uso
Ekonomia Sustatzeko
Zer egin dezaket bulego birtualean?
Bidali
Nire eskaerak
Bulego birtual honen bidez, Ekonomia Sustatzeko sailaren deialdiei dagozkien diru-laguntzen eskabideak bidal daitezke. (Tutoriala ikusteko, sakatu bideoaren irudia)
Kudeatu
Nire espedienteak
Bulego birtualean, horretarako irekitako administrazio prozedurekin lotutako hainbat gestio egin daitezke.
Kudeatu
Nire erakundeak/pertsonak
Artisau-Entitatea, autonomoa edo enpresa bateko ordezkaria edo kolaboratzaile sailarekin harremanetan jartzeko modua izango da zure erakundea/pertsona, honen bidez.
Bulego Birtualerako sarrera
Bizkaibai Txartela erabiliz
*Erabiltzailea:
*Pasa-hitza:
*Koordenatua:
J-7
Onartu
Bulego Birtualari buruzko informazioa
Sinadura Elektronikoa erabiliz
(Izenpe, NAN Elektronikoa, B@k, FEA, B@kQ, ...)
Beharrezkoa izanez gero, sar ezazu zure identifikazio txartela ordenagailuaren irakurtzailean
Onartu
Baldintza teknikoak
Eskabideen kanpaina
Eskaerei buruzko informazio telefonikoa:
94 406 8008

## 2. Artisau Entitateen Erregistroan alta emateko eskaera

Bulego birtualean sartu ondoren, “NIRE ENTITATEAK” > “Bizkaiko Artisau-Entitateen Erregistroa” > “Artisau-entitateen alta/kontsulta/aldaketa” aukerak hautatu eta eskaerari ekingo diozu.




### 1. urratsa: Aukeratu erakundea/pertsona

- “Nire erakundeak/pertsonak” laukian agertzen den entitate/pertsona izenean klikatu.



## 2. urratsa: Erakundea/pertsona datuak

- Erakundearen/pertsonaren datuak jasotzen dituzten lau fitxa agertuko dira: datu orokorrak, helbideak, ordezkariak/laguntzaileak, bidali beharreko dokumentazioa.
- 2. urratseko datu guztiak zuzenak badira, sakatu “Bidalketen zerrenda/zirriborroak” botoia.




## 3. urratsa: Bidalketen zerrenda/zirriborroak

Oraindik bidalketarik egin ez denez, ez dago pantaila honetan erakusteko informaziorik, eta, beraz, urrats hori salto egiten da.

## 4. urratsa: Eskabidearen datuak

Hainbat fitxa agertuko dira, zure negozioari buruzko informazioarekin bete beharrekoak.

**Garrantzitsua: fitxa bakoitzean** datuak bete ondoren, sakatu **"Gorde"** botoia hurrengo pantailara pasatu baino lehen.

- Datu bereziak

Bete arduradunari buruzko informazioa jakinarazpenak egin ahal izateko eta enpresaren plantillari buruzko informazioa. Gogoratu fitxa honetan adierazten dituzun web helbidea. telefonoa eta posta elektronikoa web gunean argitaratutako artisau-entitateen bilatzailean agertuko direla, bisitatzen duten pertsonak nahi izanez gero zurekin harremanetan jar daitezen.






## Jarduera

Sakatu “Berria” botoia, artisautza-jarduerarekin lotutako datuak osatzeko.






<u>Garrantzitsua</u>: “Jarduera” laukian ikonoa sakatu behar da “Azpi-jarduera” aukerak kargatzeko.


* Jarduera

* Azpi-jarduera

Epigrafe fiskalak

* Alta-data (ee/hh/uuuu)

* Ekoizpen-prozesua

* Produktuak

* Lanabesak, erremintak eta makinak

asdfas

* Lehengaiak (gordinak, erdi-elaboratuak, elaboratuak)

* Egindako jarduera guztien artean jarduera honek suposatzen duen diru-sarreren ehunekoa (%). Bakarrik jarduera hau egiten baduzu, % 100 adierazi beharko duzu.

* Azken urte naturaleko salmenta-kopurua (€)

Kontuan izan adierazten duzun Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafe fiskalak zerikusia izan behar duela deskribatutako artisau-jarduerarekin.




Deskribapen hau garrantzitsua da, web-ean argitaratutako artisau-entitateen bilatzailean agertuko baita, zure harremanetarako datuekin batera.

“Gorde” botoia sakatu, aurreko pantailara itzultzeko.

Artisautza-jardueraren datuak bete ondoren, zure lanen 4 argazki atxikitu behar dituzu  ikonoan klik eginez.




➢ <u>Elkarteak</u>

Sakatu “Berria” botoia eta bete kide izan zaren eta/edo gaur egun kide zaren elkarteei buruzko informazioa.






- <u>Tailerra</u>

Osatu lana egiten duzun tailerrari dagozkion datuak. Gogoratu hemen adierazten duzun <u>helbidea</u> web gunean argitaratutako [artisau-entitateen bilatzailean](#) agertuko dela, bisitatzen duten pertsonek jakin dezaten non dagoen zure negozioa..



➢ <u>Saltzeko moduak</u>

Izen komertziala izanez gero, adierazi atal honetan.

Zehaztu salmenten <u>gutxi gorabeherako ehunekoa</u> 4 modalitateetako bakoitzean: 1) salmentak azoketetan, 2)salmentak zure tailerrean edo/eta dendan, 3) online salmentak eta 4) banatzaileen bidezko salmentak (beste batzuen merkataritza-establezimenduak, bitartekariak, etab). Eremu guztien baturak % 100 izan behar du.



- Salmenta eremuak

"Saltzeko moduak" fitxan azoketan edo merkataritza-establezimenduak dituzten banatzaileen bidezko salmenten ehunekoren bat adierazi baduzu, sakatu "Berria" botoia eta osatu azokaren eta/edo establezimenduaren datuak: izena, udalerria probintzia eta herrialdea.






➢ <u>Elkarreragingarritasuna</u>

BFAko Ekonomia Sustapen Sailak aurkeztutako eskabidea baloratzeko beharrezkoak diren gainerako datuak eskuratuko ditu.

BFAk datuak eskuratzeko eragozpenik ez baduzu, ez duzu inolako ekintzarik egin behar fitxa honetan. BFAk beharrezko datuak eskuratzeari uko egin nahi badiozu, dagozkion laukiak hautatu, aurka egiteko arrazoia zehaztu eta eskatutako dokumentuak aurkeztu beharko dituzu.




➢ <u>Bidali behar diren agiriak</u>

Atxikitu lau argazki, artisau-jardueran erabilitako <u>lan-prozedura, tailerra eta makineria/lanabesak</u> erakusten dituztenak.

Aukerakoa da, interesgarria izan daitekeen beste dokumentazio bat eranstea.




➢ <u>Datuak aldatu</u>

Fitxa honetan, pantailan agertzen den laukian “ALTA” adierazi behar duzu.




## <u>5. Urratsa: Eskabide bidaltzea</u>

Artisau-Entitateen Erregistroan alta emateko eskaera amaitzeko, “5. urratsa: Bidali eskaera” botoia sakatu behar duzu.

Posta elektronikoz jasoko duzu bidalketaren baieztapena eta zure eskaera Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saileko Artisautza taldeak eta BEAZ gure erakunde laguntzaileak ebaluatuko dute.